


ZURE BURUARI BURUZ ARGITARATUTAKO INFORMAZIOA KUDEATZEKO CHECKLIST-A

Zure buruari buruz online argitaratutako informazioari buruzko “auto-bilaketa” (egosurfing) praktikatu ondoren, eta zure posta elektronikoko alertak berrikusi ondoren, zure pribatutasuna, identitatea edo izen ona arriskuan jartzen duen informazioa edo datu pertsonalak Interneten argitaratuta daudela ohartu zaitezke. Zure kasua bada, ondoko checklist hau zure pribatutasuna kudeatzen lagundu zaitzake:



Arrisku-maila ebaluatu

Zure pribatutasunean eta online ospean duen eragina zehaztu, zure ekintzak lehenesteko eta nola jokatu erabakitzeko.

Pantaila-argazkiak eta erregistroak egin

Nahi ez duzun edukiaren ebidentziak bildu zure erreklamazioa babesteko.

Pribatutasun-politikak eta zerbitzu-baldintzak berrikusi

Kontsultatu eta ezagutu nahi ez duzun edukia ezabatzea eskatzeko dituzun eskubideak eta aukerak.

Gunearen administratzailearekin harremanetan jarri

Zure datuak argitaratu diren webguneko harremanetarako informazioa bilatu, eta datu horiek ezabatzeko eskatu.

Online tresnak erabili

Tresna horiek informazio sentikorra modu eraginkorragoan identifikatzen eta ezabatzen lagundu diezazukete.

Bilaketa-tresnen euskarria eskatut

Bilatzaileek prozesura espezifikoak dituzte edukia ezabatzeko eskaerak kudeatzeko.

Pribatutasun-konfigurazioak berrikusi

Zure online profiletako ezarpenak berrikusi, sare sozialak eta zerbitzu-plataformak, zure informazio pertsonala nori ikusi eta partekatu dezakeen egiaztatzeko.

Datuak babesteko zure eskubideari buruz gehiago jakin nahi baduzu, **AEPDko herritarrentzako gida** kontsultatu edo gure webgunera sartu:

<https://www.zibersegurtasun.eus/>